



EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica



GIZARTE ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZAKO 2. MAILA 2010

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACION
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

1. KONPETENTZIAREN DESKRIPZIOA

Gizarteari buruzko jakintzak haren ikuspegi guztietatik erabiltzeko trebetasuna da gizarterako eta herritartasunerako gaitasuna; betiere, gizarte-gertakariak eta -arazoak aldagarriak diren testuingurutan eta espazio-eskalatan interpretatzeko, horiei dagozkien erantzunak landu eta erabakiak hartzeko, eta beste pertsona eta talde batzuekin elkarreragiteko, indarreko arauak betez.

Gaitasun honen bidez lortu nahi da ikasleek egungo gizartean eta sistema demokratikoaren antolamenduari, funtzionamenduari eta eboluzioari buruzko jakintza zehatzak izan ditzaten eta, berariaz, sistema demokratikoaren ezaugarriak eta balioak ezagut ditzaten; halaber, trebetasunak lantzea du helburu, inguruneko arazoak identifika ditzaten, beren bizipenak aztertu eta horiei buruzko gogoetak egin ditzaten, garrantziko informazioa lortu, interpretatu eta balora dezaten, eta, finean, proposamenak lan ditzaten, arduraz eta gero eta autonomia handiagoz bizitzeko. Beste xede batzuk dira gizarte-gertakariari buruzko ikuspegi kritikoa lantzea, gizarte-justizia, dibertsitatearekiko errespetua eta antzeko balio demokratiko eta herritarrak garatzea, eta jarrera gogotsuak izatea ingurukoei entzuteko, elkarrizketatzeko, laguntzeko, parte hartzeko, enpatia izateko, etab. Ikasleak beren nortasunaz jabetzea eta kontzientzia hori heltzea lortu nahi da, eta horixe bera egitea garaiko gizarteak ageri dituen injustizia, arazo eta desorekekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparrua zehaztean, ikusten da lotura eta elkarreragin handiak dituela beste oinarrizko gaitasun batzuekin. Izan ere, gaitasun horren oinarrizko alderdietako batzuk aztertzean, ikusten da bere baitan biltzen direla ezaugarri hauek: informazioa aztertzea, beste pertsona batzuekin elkarrizketatzea, arazoetarako konponbideak proposatzea, gizarte-gertakarien protagonistak eta interesak identifikatzea eta horien kausak eta ondorioak erlazionatzea. Ildo horretatik, lotura horietako batzuk baino ez ditugu nabarmenduko, aintzat hartuta, orobat, ezaugarri hori bat datorrela oinarrizko gaitasunak sare baten moduan ulertzen dituen ereduarekin. Hala, ikuspegi horren arabera, gaitasun guztiak daude elkarri lotuta eta elkar elikatzen eta laguntzen dira.

Gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren eduki-esparruak bat egiten du zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasunaren eduki-esparruaren alderdi hauekin: biek ikertu nahi dituzte zorrotasun zientifikoz gizarte-gertakariak, eta ikuspegi sinplistik gainditzten dituzten planteamenduak egin nahi dituzte. Halaber, ikuspegi ekosistemikoa lantzen dute, gizartean berezko konplexutasuna ulertzen saiatzeko.

Gaitasun guztiek informazioa erabiltzeko darabilten modua baliatzen du (informazio-iturriak identifikatzea, informazio garrantzitsua hautatzea eta prozesatzea, informazioaren azterketa kritikoa egitea, informazioa berregitea, etab.), baina, batik bat, informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko gaitasunak darabilena.

Hizkuntza-komunikaziorako gaitasunarekin lotura estua dute ezaugarri hauek: elkarrizketatzea, entzutea, proposamenak egin eta iritziak ematea, balorazioak egitea, pertsonen arteko trukeak eta harremanak aintzat hartzea, etab.

Kultura humanistiko eta artistikorako gaitasunarekin partekatzen ditu eduki hauek: ikuspegi kritikoz baloratzea gero eta anitzagoa den gizartearen adierazpen ugariak, nork bere nortasunaren kontzientzia garatzea, gizartean eboluzioa ulertzea, inguruneko gertakari konplexuei eta gizakien adierazte- eta sortze-modu anitzei

buruzko iritzi autonomoak izatea, eta horietan guztietan parte hartzea eta horiez gozatzea.

Ikasten ikasteko gaitasunaren egiturazko printzipioekin lotzen dira, zuzenean, eduki hauek: norberaren autonomia indartzea, nork bere nortasunaren jabetasuna garatzea eta ikaste-prozesuan norberak duen protagonismoa indartzea, eta jarrera intelektualak eta emozionalak erabiltzea.

Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasunarekin lotzen dira gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren funtsezko alderdi batzuk; esaterako, pertsonen balio eta jarrera hauek garatzea: ardura; autonomia; autokritika; ekin-jardunaren jarraikortasuna; norberak dituen aukeren jabetasuna; arriskuak hartzea, alde onak eta zailtasunak aintzat hartuz, etab.

Eta, azkenik, matematika-gaitasunarekin lotzen dira ezaugarri hauek: kantitatezko eta espaziozko informazioa interpretatzea; logika erabiltzea, arazoak aztertze; soluzioak bilatzea; pentsamolde abstraktua eratzen joatea; gizarte-gertakarien kantitate-adierazpenei buruzko kalkuluak egitea, etab.

Finean, gizarterako eta herritartasunerako gaitasunaren bidez, ikasleak alfabetatu nahi dira gizarteko eta herritartasuneko jakintza, trebetasun eta balioetan, horiek guztiak eskuratuta, gai izan daitezen informazioa eskuratzeko eta aztertze, arazoak identifikatzeko, informazioa eta proposamenak interpretatu eta baloratzeko, kausen eta ondorioen arteko harremanak egiteko, entzuteko, elkarrizketatzeko, soluzioak jakinarazi eta proposatzeko, eta jarduera-plan koherenteak eta arduratsuak egiteko, bai bere buruarekiko, bai inguruko jendearekiko eta gizateria osoarekiko.

Eskolak inguruneari erreparatzen dio, eta gizartearen eta herritarren bizitzan parte hartzen du, errealtate hori aldatzen laguntzen du, eta ikasle bakoitza aldaketa-prozesu horren protagonista bilakatzen da, bere eguneko bizipen eta jardueren testuinguruan.

2. GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN DIMENTSIOAK

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia edo gaitasuna **dimentsioak** deituriko multzo handietan dago egituratua. Dimentsio horietako bakoitzak **azpikonpetentzia** batzuk ditu, eta azpikonpetentzia horietako bakoitzerako **ebaluazio-irizpideak** zehaztu dira; azken horiek, hain zuzen, ikasleak egitea espero den zeregin edo eragiketa zehatzak dira, konpetentzia lortu duela erakusten dutenak. Adierazleek argi eta garbi erakusten digute ikasleak zer jakin behar duen eta zer dakien, eta zer nolako jarrera duen bizitza arduratsua, autonomia, solidarioa, parte hartzailea eta, besteak beste, ekintzailea izateko, bai bere buruarekiko, bai gainerako pertsonekin dituen harremanekiko. Halaber, horixe bera adierazten dute lanarekiko, osasunarekiko, balio demokratikoekiko, ingurumenarekiko eta beste alderdi batzuekiko.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia hiru dimentsio hauetan banatzen da:

- Gizarte-errealitatea.
- Herritartasuna.
- Bizikidetzeta.

Dimentsio bakoitzaren ezaugarriak adieraziko ditugu, haien eduki eremua zehaztu eta adibideen bidez bistaratzeko.

Gizarte-errealitatea

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusiak dituen oinarritzko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ea ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hauteman eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta bestelakoak.

Herritartasuna

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharreko lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritza. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu, globalizazioaren ondorioak azalarazten dituztenak. Ildo horretatik, bizikidetzaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urrapenak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

Bizikidetza

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzean datza, eta bereziki bultzatzen du haiek ebatzi edo konpontzeko alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetza antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatu dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Jarraian, taula batean adieraziko dira dimentsio bakoitzaren azpi-konpetentziak:

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KOMPETENTZIA

Gizarte-errealitatea

1. Errealitate historikoaren bilakaera.
2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4. Informazioa eta komunikazioa.

Herritartasuna

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6. Herritartasunaren egikaritzea edo erabilera arduratsua.
7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.


Bizikidetzeta

8. Gatazkak ebatzi eta konpontzea.
9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.

**GIZARTERAKO ETA
HERRITARTASUNERAKO
KONPETENTZIAREN ITEM ADIBIDEAK**

**DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZAKO 2. MAILA**

ETA ZUK, ZER EGINGO ZENUKE?



Debekatuta dagoela badakite ere, Ainhoa, Itziar eta Juan ikasgelan gelditu dira atsedendian. Juan irakaslearen mahaiarekin hasi da tontakeriak egiten, tiraderak apurtu arte. Ikaskideek, ikasgelara sartu direnean, mahaia apurtuta aurkitu dute. Ondoren tutorea etorri da eta apurketaz galdetu arren, atsedendian ikasgela barruan gelditu direnen artean inork ez du ezer esan.

1. Zure ustez, zein esaldik adierazten du hoberen atsedendian ikasgelan gertatutakoa?
 - A. Ainhoak, Itziarrek eta Juanek erru bera dute.
 - B. Ainhoak eta Itziarrek ez dute inolako errurik, ez dutelako ezer egin.
 - C. Juan da errudun bakarra, atsedendian gelditu eta tiraderak apurtu dituelako.
 - D. Juan da errudun nagusia, tiraderak apurtu ondoren tutoreari ez diolako ezer esan nahi izan.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3: Bizikidetza.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 8: Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Erantzukizun nagusiak eta garrantzia gutxiagokoak bereizten ditu eta gatazketako protagonistak identifikatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Juan da errudun nagusia, tiraderak apurtu ondoren tutoreari ez diolako ezer esan nahi izan.

Tutoreak hau esan die ikasleei: “Zuekin banan-banan hitz egiten hasiko naiz, zer gertatu den jakiteko. Dakizuenez, ikastetxeko arauen arabera tiraderak apurtu dituenari ordaintzea eskatuko diogu”.

2. Ondoko aukeren artean, zer iruditzen zaizu tutoreak hartu duen neurria?
- A. Tutorea egia jakiten saiatzen da, apurketa egin duenak ordaintzeko.
 - B. Ez du merezi ikasle bakoitzarekin hitz egiteak, inork ez duelako ezer esango.
 - C. Seguruenik ikastetxeko arautegiak ez du hori esaten, eta tutorearen asmakizuna da.
 - D. Ez da bidezkoa konponketaren ordainketa eskatzea, apurketa nahi gabe egin baita.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Gatazkak konpontzeko arauak aplikatzea balioesten du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Tutorea egia jakiten saiatzen da, apurketa egin duenak ordaintzeko.

JANARIEN KRISIALDIA

Imajina ezazu egun batean egunkaria ireki eta honelako berri bat aurkitzen duzula. Irakurri arretaz:



Janariaren prezioen igoerak, garapen bidean dauden herrialdeetako nekazariei onura ekarri beharrean, beren egoera okerragotu egin du. 290 milioi pertsona pobreziara eraman ditu.

Familiarik pobreenek beren dieta aldatu behar izan dute (elikatze-balio txikiagoko dieta bat egin) eta janari kopurua murriztu behar izan dute eta hezkuntza eta osasun gastuak ere gutxitu.

Azken hamarkadetan nekazaritzaren garapen-erako nazioarteko laguntza nabarmen gutxitu egin da.

FAOk (Nazio Batuen Elikadura eta Nekazaritza Erakundea) 12.000 milioi dolar eskatu zituen krisialdiari aurre egiteko, baina 1.000 milioi baino apur bat gehiago ez dira bildu.

1. Zein izenburu jarriko zenioke berriari?

- A. Janariaren prezioen igoerak herri garatuetako egoera okerragotu egin du.
- B. Eskatutako 1.000 milioiak lortu ditu FAOk.
- C. Garapenerako nazioarteko laguntza handitu egin da.
- D. Janariaren krisialdiak 290 milioi pertsona pobreziara eraman ditu, nazioarteko komunitatearen erantzun urriagatik.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 4. Informazioa eta komunikazioa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Nazioarteko elkartasuna azaltzen duen testu baten ideia nagusia identifikatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Janariaren krisialdiak 290 milioi pertsona pobreziara eraman ditu, nazioarteko komunitatearen erantzun urriagatik.

2. Zer esango zenuke nazioarteko komunitateak janarien krisialdiaren aurrean izan duen jokaerari buruz?

- A. Elkartasunezko jokaera da garapen bidean dauden herrialdeekiko, haietaz berehala arduratu direlako.
- B. Elkartasunik gabeko jokaera eta bihozgabekeria bat da garapen gutxiagoko herrialdeekiko.
- C. Jokaera normala da, herrialde bakoitzak bere arazoak konpondu behar dituelako.
- D. Jokaera eskuzabala da, herrialde aberatsek ez daukatelako zerikusirik herrialde pobreei gertatzen zaienarekin.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA:*** 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA:*** 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA:*** Krisialdi baten aurrean nazioarteko komunitateak duen jokabidea baloratzen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA:*** B. Elkartasunik gabeko jokaera eta bihozgabekeria bat da garapen gutxiagoko herrialdeekiko.

3. Zer egin beharko luke NBEk (Nazio Batuen Erakundea) testuan irakurri dituzun bezalako **pobrezia-egoerak konpontzeko**?

- A. Herrialde aberatsetako gobernuei herrialde pobreentzako diru-laguntza handitzea eskatu.
- B. Herrialde pobreei laguntzarik ez eskatzeko agindu.
- C. Nazioarteko arazoek konponbidean parterik ez hartu.
- D. Herrialdeen artean diskriminazioa eta ezberdintasuna sustatu.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 3: Bizikidetzak.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Nazioarteko krisialdi batean zein den Nazio Batuen Erakundearen eginkizuna ezagutzen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: A. Herrialde aberatsetako gobernuei herrialde pobreentzako diru-laguntza handitzea eskatu.

4. Elkartasunaren kontzeptua erabiltzen dugunean, zer ulertzen duzu hitz horrekin? Hurrengo ekintzen artean, zeintzuk egingo zenituzke solidarioa zarela erakusteko? Markatu **BAI** ala **EZ**:

	BAI	EZ
a. Pertsona itsu bati kalea zeharkatzen lagundu.		
b. Gurasoei obeditu.		
c. Lagunei urtebetetzeko opariak egin.		
d. Nire bizikletan bidegorritik joan.		
e. Soberan ditudan gauzak, gutxiago dutenei eman.		
f. Autobusean emakume haurdun bati jarlekua utzi.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3: Bizikidetza.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Elkartasuna adierazteko egoerak identifikatzen ditu Bere eguneroko bizitzan.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	BAI	EZ
a. Pertsona itsu bati kalea zeharkatzen lagundu.	X	
b. Gurasoei obeditu.		X
c. Lagunei urtebetetzeko opariak egin.		X
d. Nire bizikletan bidegorritik joan.		X
e. Soberan ditudan gauzak, gutxiago dutenei eman.	X	
f. Autobusean emakume haurdun bati jarlekua utzi.	X	

Hurrengo testuan GKEak (edo ONG) zer diren azaltzen da. Irakurri arretaz:

Gaur egun, elkartasuna erakundeen bitartez bideratzen da, Estatuarenak zein independenteak. Erakunde independente horiek Gobernu Kanpoko Erakundeak deitzen dira eta GKE siglekin ezagunak dira. Erakunde horiek era guztietako ekarpenak biltzen dituzte –dirua, denbora, materialak (janaria, botikak, tresneria...)- eta Hirugarren Munduko garapen-proiektuetan inbertitzen dituzte.



5. Irakurri duzunaren arabera, hurrengoan artean zein **EZ** da GKE bat?

- A. Mugarik Gabeko Medikak.
- B. Cáritas.
- C. Ikasleen gurasoen elkarte.
- D. Nazioarteko Amnistia.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: GKEak ezagutzen ditu.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: C. Ikasleen gurasoen elkarte.

HERRI TXIKI BATEKO BIZTANLERIA

Irakurri testua eta erantzun galderei.



Arbelaga herriak 380 biztanle ditu. Duela urte batzuk 800 zituen ia. Udalak azken bileran erabaki batzuk hartu ditu. Egunkariak izenburu hau argitaratu du:

Arbelagako udalak 600 euro eskaintzen ditu jaiotzen den haur berri bakoitzarengatik

1. Zein arazo konpondu nahi du, zure ustez, Arbelagako udalak?

- A. Pobrezia murriztea, familia behartsuenei laguntza emanez.
- B. Baserriei lehen zuten ekonomia-maila berreskuratzen laguntzea.
- C. Herria ez desagertzea lortzea, oso haur gutxi daudelako.
- D. Ekonomia bultzatzea, lan egiten duten gazteei dirua emanez.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Identifikatzen du zein den konpondu nahi den gizarte arazoa.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Herria ez desagertzea lortzea, oso haur gutxi daudelako.

Egunkariko berriak honako hau ere azaltzen zuten:

Udalaren erabakiaren barruan beste mota bateko laguntza ere eskaintzen da. Udalak hirugarren seme-alabaren eta hurrengo eskola-gastuak ordainduko ditu 18 urtera arte.

2. Zergatik ordainduko ditu hirugarren seme-alabaren eta hurrengo eskola-gastuak 18 urtera arte?

- A. Kultura haurren eta gazteen artean indartu nahi dutelako.
- B. Familiek bi seme-alaba baino gehiago edukitzea nahi dutelako.
- C. Hezkuntza zerbitzu publikoa delako; beraz, guztientzat doakoa izan behar da.
- D. Gazteek 18 urtetik aurrera ez dutelako ikasten eta lanean hasten direlako.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 1: Gizarte-errealitatea.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Jaiotza-tasa bultzatzeko gizarte neurri baten helburua adierazten du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: B. Familiek bi seme-alaba baino gehiago edukitzea nahi dutelako.

Arbelagako udalak baldintza batzuk finkatzea erabaki du 600 euroak jasotzeko:

Familiek diru-laguntza eskatu ahal izango dute bi ezkontideak, edo bat familia gurasobakarren kasuan, jaiotza edo adopzio-data baino bi urte lehenagotik gutxienez errolaturik baldin badaude.

3. Adieraz ezazu zeintzuek duten diru-laguntza jasotzeko eskubidea:

	BAdute eskubidea	EZ dute eskubiderik
a. Bikotea diren eta haur bat adoptatzea erabaki duten bi emakumek, biak Arbelagan jaiok.		
b. Ezkondu gabe alaba bat izan duten gizon batek eta emakume batek. 2002an Arbelagan errolatuak.		
c. Gurasoak istripu batean galdu ondoren, iloba bat adoptatu duen ezkongabeko gizon batek, Arbelagan jaiok.		
d. Arbelagan errolatu berri diren senar-emazteek (emaztea haurdunaldiaren seigarren hilabetean dago).		
e. Arbelagan jaiotako gizon batek eta emakume batek, ezkondu, neskato bat adoptatzera Errusiara joango direnak.		
f. Herrian duela hamar urtetik hona bizi den emakume ezkongabe batek (haurdunaldiaren seigarren hilabetean dago).		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Jaiotza-tasa bultzatzeko gizarte neurri baten helburua adierazten du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	BAdute eskubidea	EZ dute eskubiderik
a. Bikotea diren eta haur bat adoptatzea erabaki duten bi emakumek, biak Arbelagan jaiok.	X	
b. Ezkondu gabe alaba bat izan duten gizon batek eta emakume batek. 2002an Arbelagan errolatuak.	X	
c. Gurasoak istripu batean galdu ondoren, iloba bat adoptatu duen ezkongabeko gizon batek, Arbelagan jaiok.	X	
d. Arbelagan errolatu berri diren senar-emazteek (emaztea haurdunaldiaren seigarren hilabetean dago).		X
e. Arbelagan jaiotako gizon batek eta emakume batek, ezkondu, neskato bat adoptatzera Errusiara joango direnak.	X	
f. Herrian duela hamar urtetik hona bizi den emakume ezkongabe batek (haurdunaldiaren seigarren hilabetean dago).	X	

Hurrengo taulan Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE), Arbelagako eta Irukieta biztanleriaren konposizioa duzu ehunekoetan:

	EAE	Arbelaga	Irukieta
0-19 urte	%16,5	%11,2	%20,8
20-64 urte	%64,9	%51,7	%64,5
+ 65 urte	%18,6	%37,1	%14,7

4. Hurrengo ezaugarri hauen artean zein da zuzen bakarra?

- A. Arbelagako biztanleria oso zahartuta dago.
- B. Hiruretan zaharren ehunekoa gazteen ehunekoa baino handiagoa da.
- C. Irukieta etorkizun eskasa du, %14,7k bakarrik baitute 65 urte baino gehiago.
- D. Hiruretan berdintsua da lanerako adinaren barruan (20 eta 64 urte bitartean) dauden pertsonen ehunekoa.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Populazio baten konposizioa aztertzen du eta beste batzuekin konparatzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** A. Arbelagako biztanleria oso zahartuta dago.

5. Eman dezagun hamar urte pasa direla. Zein izan liteke, zure ustez, Arbelagako biztanleriaren egoera udalak proposatu zituen neurriek arrakasta izan balute?

Arbelaga (hamar urte geroago)				
	1. egoera	2. egoera	3. egoera	4. egoera
0-19 urte	%11,2	%5,8	%15,6	%37,1
20-64 urte	%51,7	%57,1	%47,3	%51,7
+ 65 urte	%37,1	%37,1	%37,1	%11,2

- A. 1. egoera. Ez da ezer aldatu, pertsonak berberak direlako.
- B. 2. egoera. Dagoeneko, gazte batzuk lanerako adinean daude.
- C. 3. egoera. Jaiotza-kopurua igo egin da.
- D. 4. egoera. Joera alderantzikatu da erabat.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Populazio batean faktore bat aldatzean, zein izan daitekeen bilakaera iragartzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. 3. egoera. Jaiotza-kopurua igo egin da.

LORTU ZURE KIOTOKO TXARTELA

Irakurri arretaz hurrengo testu hau:

1997an, Kioto hirian (Japonia) Kiotoko Protokoloa sinatu zen. Nazioarteko akordio honen helburua zen negutegi efektuko gasen igorpenak murriztea. Herrialde industrializatuak konprometitu ziren 2008-2012 aldirako 1990eko gas horien igorpen maila %5ean murriztera. Klima aldaketaren kontrako borroka lehentasunezko gaia izan beharko litzateke gobernuentzat, enpresa sektorearentzat eta, azken batean, herritar guztiontzat.



Bioaniztasuna Fundazioaren xede estrategikoren bat, hain zuzen ere, klima aldaketaren kontrako borroka sustatzea da. Bere helburu nagusietako bat gizarteak arazo honi buruzko kontzientzia hartzea da. Horretarako, "Lortu zure Kiotoko txartela" kanpaina antolatu du. Kanpaina horren bidez, herritarrek beren eguneroko bizitzan CO₂ igorpenak murrizten laguntzen duten portaerak eta ohiturak hartzea nahi du. Horrela, planetaren berotze globala murrizten lagunduko dute. Kioto Protokoloaren Klubeko bazkide izateko nahikoa da eguneroko bizitzan ingurumena errespetatzen duten ohiturak hartzeko konpromisoa.

1. Zein da, zure ustez, “*Lortu zure Kiotoko txartela*” kanpainaren helburua?
- A. Herritarrei Kiotoko Protokoloaren alde agertu beharraren kontzientziatzea.
 - B. Gobernuari eta enpresei Kiotoko Protokoloaren alde agertu beharraren kontzientziatzea.
 - C. Gobernuaren Ministerio ezberdinei Kiotoko Protokoloaren alde agertzeko nola portatu behar diren erakustea.
 - D. Pertsonak beren ohiturak aldatzera behartzea.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- ***DIMENTSIOA***: 2: Herritartasuna.
- ***AZPI-KONPETENTZIA***: 7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- ***ITEMAREN HELBURUA***: Ingurumena zaintzearen aldeko kanpaina baten helburua antzematen du.
- ***ERANTZUN ZUZENA***: A. Herritarrei Kiotoko Protokoloaren alde agertu beharraren kontzientziatzea.

2. Ondoren konpromiso batzuk dituzu. Zeinekin edo zeintzuekin egin zenezake bat, zure ustez, Kiotoko Protokoloaren Klubarekin? Idatzi **X** bat behar den laukitxoan.

	BAI	EZ
a. Telebista itzaltzeko urrutiko agintea erabiltzen dut beti.		
b. Ordenagailua denbora tarte luze batean erabiltzeko asmorik ez dudanean itzali egiten dut.		
c. Telefono mugikorra gauetz kargatzen dut, lo nagoen bitartean.		
d. Geletatik irteten naizenean argiak itzaltzen ditut.		
e. Dutzako txorrota arropak erantzten ditudan bitartean irekitzen dut.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 2: Herritartasuna.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ohitura pertsonalek ingurumena hondatzean duen eraginkortasuna hautematen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	BAI	EZ
a. Telebista itzaltzeko urrutiko agintea erabiltzen dut beti.		X
b. Ordenagailua denbora tarte luze batean erabiltzeko asmorik ez dudanean itzali egiten dut.	X	
c. Telefono mugikorra gauetz kargatzen dut, lo nagoen bitartean.		X
d. Geletatik irteten naizenean argiak itzaltzen ditut.	X	
e. Dutzako txorrota arropak erantzten ditudan bitartean irekitzen dut.		X

3. Herritar bezala, zer iruditzen zaizu kanpaina hori?

- A. Nire ustez, arazoa hain globala denez, gobernuei bakarrik dagokie konponbideak aurkitzea.
- B. Nire ustez, kanpaina hori ez dagokie pertsona arruntei, enpresei baizik, kutsatzen dutenak haiek direlako.
- C. Nire ustez, berotze globalaren arazoa konpon daiteke, pertsona guztiok geure aldetik zerbait egiten badugu.
- D. Nire ustez, bakarrik lortuko da zerbait kanpaina horrekin, pertsona guztien artean batasuna baldin badago.


ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 1: Gizarte-errealitatea.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Ingurumeneko arazoak konpontzeko erantzukizuna eta aplikatzen diren ekintzen baliozkotasuna baloratzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Nire ustez, berotze globalaren arazoa konpon daiteke, pertsona guztiok geure aldetik zerbait egiten badugu.

ALKOHOLA ETA JOLASA

Arbelaga herrian kezkatuta daude, herriko gazte batzuk gehiegi edaten hasi direla konturatu baitira.

Gazte batzuek asteburuetan "botiloia" egiten dute herrian. Beste batzuk Arbelagatik 35 kilometrotara dagoen herri handiago bateko diskotekara joaten dira autoetan edo motorretan. Bertan ere alkohol gehiegi edaten dute.



1. Gazteek jasan ditzaketen ondorioen ikuspuntutik, zure ustez, berdina ote da herrian edatea eta diskotekan edatea?
 - A. Berdina da, bieran alkohol gehiegi edaten dutelako.
 - B. Berdina da; izan ere, bi kasuetan isuna jar diezaiekete.
 - C. Ez da berdina; diskotekan gehiago edango dute, bertan helduek ez dituztelako ikusten.
 - D. Ez da berdina, trafiko istripu baten ondorioak larriagoak izaten direlako beti.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 10. Bizikidetzaren araupen edo antolamendua.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Portaeren ondorioak ezagutzen eta graduatzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** D. Ez da berdina, trafiko istripu baten ondorioak larriagoak izaten direlako beti.

Hezkuntza eta kultura zinegotziak udal batzorde bat eratzea proposatu dio alkateari, arazo hori nola konpon daitekeen aztertzeko.

Batzordeak egin duen lehenengo gauza herriko pertsona interesatuei bilera batera deitzea izan da, arazoa konpontzeko moduari buruzko iritzia eman dezaten.

2. Hona hemen batzordean esan ziren proposamen batzuk. Zein izan liteke, zure ustez, egokiena edo eraginkorrena arazoa konpontzeko?

- A. Edari alkoholdunak garestiago saltzea.
- B. Dendetan eta tabernetan edari alkoholdunen salmenta debekatzea.
- C. Alkohola edatearen kontrako kanpaina bat egitea eta gazteen astialdirako jarduera ezberdinak proposatzea.
- D. Auto guztietan alkoholometro bat jartzera behartzea; horrela, alkohola edan duten gazteek ez dute gidatuko.

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Gatazka baten oinarriak eta erantzun batzuen desegokitasuna ulertzen ditu.
- **ERANTZUN ZUZENA:** C. Alkohola edatearen kontrako kanpaina bat egitea eta gazteen astialdirako jarduera ezberdinak proposatzea.

3. Jarraian batzordean aurkeztu zituzten beste neurri batzuk dituzu. Adieraz ezazu **zeintzuek** duten **izaera hezgarria** (ez edatearen abantailak erakusten saiatzen dira) eta **zeintzuk oinarritzen diren zigortzean**:

	NEURRI HEZGARRIA	ZIGOR-NEURRIA
a. Asteburuetan alkohola edaten duten gazteak kartzelan sartzea.		
b. Gazteen familiekin hitz egitea, gazteen artean ohitura osasungarriak zabaltzen laguntzeko.		
c. Udala, anbulatorioa eta ikastetxea inplikatzeko konponbideak bilatzeko.		
d. Herriko gazteak bildu eta galdetzea zein astialdirako aktibitateak egin nahi dituzten asteburuetan.		
e. Familiak gazteak salatzerara eta zigortzerara behartzea.		

ITEMAREN DESKRIPZIOA

- **DIMENTSIOA:** 3: Bizikidetzeta.
- **AZPI-KONPETENTZIA:** 8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
- **ITEMAREN HELBURUA:** Gatazkak konpontzeko proposamenek izaera hezgarria duten baloratzen du.
- **ERANTZUN ZUZENA:**

	NEURRI HEZGARRIA	ZIGOR-NEURRIA
a. Asteburuetan alkohola edaten duten gazteak kartzelan sartzea.		X
b. Gazteen familiekin hitz egitea, gazteen artean ohitura osasungarriak zabaltzen laguntzeko.	X	
c. Udala, anbulatorioa eta ikastetxea inplikatzeko konponbideak bilatzeko.	X	
d. Herriko gazteak bildu eta galdetzea zein astialdirako aktibitateak egin nahi dituzten asteburuetan.	X	
e. Familiak gazteak salatzerara eta zigortzerara behartzea.		X